

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

MILURTEKO  
GARAPEN  
HELBURUAK

## HELBURUAK

- Milurteko garapenaren zortzi helburuak ezagutu
- Helburuen lorpen-maila ebaluatu

## MATERIALAK

- Sartu interneten
- Power Point programa

LANTZEN DIREN  
KONPETENTZIAK

- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia
- Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia



## ARIKETA

**1-** Irakasleak Milurteko zortzi helburuak aurkeztuko dizkio gelari.

**2-** Zortzi talde osatzen dira eta talde bakoitzak, banatzen zaion helburuari buruz, lan bat egin beharko du.

**3-** Talde bakoitzak:

**a.** Egokitu zaion helburuarentzat helmugak zehaztuko ditu.

**b.** Helmugak neurtzen dituzten adierazleen beharra aztertuko du taldeak. Helmuga bakoitzari dagozkion adierazleak jasoko dituzte edo, denboraren arabera, adibide batzuk aukeratu (hau irakaslearen eskuetan geratzen da).

Aurreko informazioa aurkitzeko kontsulta daitezkeen iturriak:

- NBE-ren web gunea (gaztelaniaz):

[www.un.org/spanish/millenniumgoals/poverty.shtml](http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/poverty.shtml)


- ICLI eta Milurteko Garapen Helburuak azaltzen dituen bideoa (euskeraz):

[www.youtube.com/watch?v=VgP20pTLctQ](http://www.youtube.com/watch?v=VgP20pTLctQ)

**c.** Helburuen betetze-maila nolakoa den ebaluatuko du talde bakoitzak, ingelesez dagoen web gunea kontsultatuz:

[www.mdgmonitor.org/goal1.cfm](http://www.mdgmonitor.org/goal1.cfm)





**d.** Taldeari egokitu zaion helburuari buruz jasotako informazioarekin, 6-12 tarteko diapositibak duen Power Point bat muntatuko dute, ondoko gidoia jarraituz:

- Taldeari egokitu zaion helburua
- Dagozkion helmugak
- Helmuga bakoitzarentzat adierazle guztiak edo adibide batzuk
- Adierazle batzuen betetze-maila

Power Pointeko diapositibak irudien eta grafikoaren bidez hornitzeko baliabideak eta informazioa ondoko web guneetan aurki daitezke:

- BANCO MUNDIAL (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): <http://devdata.worldbank.org/atlas-mdg/es/>

- AGENCIA DE NOTICIAS Inter Press Service (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): [http://ipsnoticias.net/\\_focus/metas\\_milenio/graficas.asp#1](http://ipsnoticias.net/_focus/metas_milenio/graficas.asp#1)

- UNICEF-eko gazteen iritzia (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): [http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/mdg/explore\\_2204.html](http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/mdg/explore_2204.html)

**e.** Talde bakoitzak prestatutako Power Point-a beste taldeei azalduko

die, horrela gelak 8 helburuei buruz informazioa jasoko du.

**4-** Gelak, sintesi moduan eta ebaluaketa-gisa, Alboan-en web gunean gaztelaniaz dagoen Tribialean jolastuko du: [www.objetivosmilenioalboan.org/](http://www.objetivosmilenioalboan.org/)

